Eman hegoak euskarari

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Egeoko ahotsak

Greziako hizkuntza eta Egeoko paisaia itsastarra banaezinak dira

ARITZ GORROTXATEGI

Palabras del Egeo' ez da Pedro Olallak antzinako Greziari eskaintzen dion lehen liburua. 1966an Oviedon jaiotako helenista, irakasle, itzultzaile eta zinemagile hau Atenasen bizi da 1994az geroztik, eta aurretik 'Historia menor de Grecia' eta 'Grecia en el aire' saiakerak ezagutzen genizkion, guztiak ere Acantilado etxean argitaratuak. Argitaletxe horren enkarguz itzuli zuen Nikos Kazantzakisen estreinako lana, 'Lirio y serpiente'. Oraingo honetan Greziara itzuli da berriro ere, izenburuak berak salatzen duen legez, Egeo itsasoaren ahotsetara. Hamazazpi urte bete berri dituen semearekin elkartzeko zain dago narratzailea Egeo itsasoko uharte batean, eta hura etorri bitartean, gutun luze batzuk idazten dizkio, antzinako greziarren zenbait kontu aletuz. Etimologiarekin hasten da, itsasoaren eta olatuen zaratarekin. «Egia esan», dio halako batean, «ez dago itsasorik gatzik gabe. Agian, horregatik dago horren errotua gatza aspaldiko kultura honetan. Gatza jainkoen dohain gisa: elikagai, sendabide eta ordain gisa». Azken honi, 'altron' eta 'halatikon' esaten zioten greziarrek; erromatarrek, berriz, 'salarium'. Soldata, alegia. Bere zorigaitzei amaiera eman nahian, Tiresias igarle itsuarengana joan zen Ulises, eta hark aholkatu zion joateko gizakiek itsasoa ezagutzen ez duten lekura, ontzi hegaldunik ikusi ez duten eta gatzez ondutako jakirik ezagutzen ez duten horretara.

Olallak garbi erakusten du ez bakarrik zenbat zor diogun antzinako Greziari etimologiaren aldetik (logosa, irakurtzea, zientzia, nostalgia, zerura begiratzea, 'zibernauta' hitza...), baita zenbateko zorra dugun haien itsasoarekin ere. Greziako hizkuntza eta Egeoko paisaia itsastarra banaezinak dira. Baina jauzi bat harago ere ematen du, eta teoria harrigarriak jartzen ditu mahai gainean. Izan ere, Olallaren ustez, Grezia ez zen Homerorekin hasi, ezta jauregi mizenikoen garaian ere. Zibilizazio minoikoa baino atzerago jotzen du, eta iradokitzen du Egeoko biztanle uhartetarrak uste baino lehenago ibili zirela munduan zehar (baita Ameriketan ere) beren «antzinako izerdia», zibilizazioaren hazia eta jatorriaren oihartzunak eramanez. Pentsa, Elkanoren 'Victoria' ontzia hogeita zortzi metro luze zen, eta, datu eta frogen arabera, badirudi Egeoko aspaldiko nabigatzaile haienak hogeita hamabost metro izatera ere heltzen zirela. Ez hori bakarrik. Piri Reis kartografo otomandarrak Kolonen garaiko eta Konstantinoplan 1513an kontsultatutako beste iturri bitxi batzuk erabiliz egin zuen mapa batean zehaztasunez agertzen dira Hego Amerikako eskualde australak Suaren Lurraldera arte. Datu arkeologiko, antropologiko, geologiko, nautiko, mitologiko eta genetikoak erabiliz, eta modu erakargarri eta sinesgarrian gurutzatuz, Olallak diosku Egeoko jatorriko biztanle haiek izan zirela zibilizazioa eta idazketa Tigris eta Eufrates ingurura eraman zutenak, eta gero handik bueltan itzuli zela Greziara. Uhartetar haiek izan ziren, halaber, nekazaritza, abeltzaintza eta zeramika Mediterraneoaren mendebaldera eta Europa barneko zenbait lurraldetara eraman zutenak Neolitikoaren lehen milurtekoetan. Brontzezko Aroa hasi baino mila urte lehenago, metalez egindako hainbat tresna eta hornigarri landu zituztela. Are gehiago, minoikoen astronomiaren eta cromlechen artean dagoen lotura ez da kasualitatea. Harrizko zirkuluak daude Maltan, Sizilian, Portugalen, Bretainian, Ingalaterran, Irlandan, Hebridak eta Orkadak uharteetan, eta leku horietatik guztietatik igaro omen ziren Egeoko ontziak. Stonehenge-k berak, «harri zintzilikariak» esan nahi omen du, baina Olallak iradokitzen du egeotarren 'stíon' (harria) eta 'anho' (estutu, inguratu) hitzen elkarketan izan dezakeela jatorria. Greziar mitologiako zenbait lurralde eta leku ez omen ziren horren alegiazkoak.

Luzea eta esanguratsua da Olallak ematen duen adibideen eta frogen zerrenda, eta hankaz gora jartzen ditu orain arteko usteak. Beste kontakizun baten aurrean geundeke, eta kontakizun berri horren arabera, Egeoko uhartetar haiek eman zioten hasiera gure zibilizazioari.

Gizatasuna hizpide

PALOMA RODRIGUEZ-MIÑAMBRES

Hiru urte igaro dira Anjel Lertxundik azken saiakera lana plazaratu zuenetik. Hainbeste estimatzen duen genero horren beste obra batekin datorkigu aurten, hiru ataletan banatua ('Desertuan behatxuloa', 'Ongi etorria eta agurra leiho beretik' eta 'Axola zaigun guztia ez da guztia') eta Flauberten aipu honekin irekitzen dena: «Ni naizena naiz, aldi berean desertu, bidaiari eta gamelu».

Lertxundik munduaz eta bizitzaz pentsatzen aurkezten du bere burua mundua konprenitu nahian. Hartara, bizialdiaren azken etapan dagoenaren pentsakizunak eta pasarte biografikoak bidera ateratzen zaizkigu orrialdeetan zehar. Idazle-bokazioa agerian, nahiz eta nekeak ere ematen dizkion, hainbat gai hartzen ditu hizpide gogoeta interesgarriak irakurleokin partekatzeko: kexaren kultura, naturaren suntsiketa, politika, pandemiaren negazionistak, hizkuntza, artea eta hainbat pentsalari zein idazleren izenak azaltzen dira (Erasmo, Zweig eta Adorno, besteak beste), gizatasunaren adierazgarri, etika eta onestasunaren beharra aldarrikatzen, iradokitzen baita obra honetan.

Gai batetik bestera saiakeraren ohiko jauziak daude, egileak oso modu zaluan uztartzen dituenak. Zintzotasun ariketa bat burutu duela esan liteke, eta 'sukalderaino' eramaten gaituela, bere indarguneak, ahulguneak erakutsiz. Hau da, ez dago autorearen adimenetik kanpo geratzen den konturik. Izan ere, bukaerako 'post scriptum'ean Ukrainako gerrari buruz diharduen bere etsipena agerian utziz.

DESERTUAN BEHATXULOA
ANJEL LERTXUNDI
Alberdania. 224 orr. 18,40 euro

Bizitzaren osotasuna eta gizatasunaren ulermen kritikoa eskaintzen du Lertxundik. Gozamenaz irakurtzen da liburua eta han-hemen aurkitzen ditugu hausnarketa sakonak bezain sarkorrak idazle oparo honen eskutik: «Etorkizunaren, garai nahasien beldurra. Trenpua ez daukagu ausardietarako, kikilduta gaude, gure baitak gorabeherarik gabeko segurtasuna du amets». Kontsolamenduraako aukera garai latzetan.

LABUR LABUR

BIME jaialdia urriaren 26tik 29ra egingo da

EL CORREO

BIME jaialdia urriaren 26tik 29ra egingo da, Bilbon. Mondo Sonoro aldizkariak aurreratu duenez, formatu berezian dator aurtengoa, festibalaren hamargarren urtemuga ospatzeko: lau eguneko musika programazioa, hirian zehar banatutako agertokietan.

Ikusiko ditugun taldeen artean egongo dira Bengo, Euskoprincess, Merina Gris, Hofe x 4:40, Idoia, Skakeitan, Ben Yart eta MICE euskaldunak. Bestela, 31FAM, Judeline, Queralt Lahoz, Shego, La Élite, Muerdo, Rosario La Tremendita, Samuraï eta espainiar Estatuan sona duten beste hainbat artista.

BIMEk sare sozialetan zabaldu duenez, hauexek izango dira aurtengo edizioaren nondik norakoak: «Nazioko eta nazioarteko 65 artista baino gehiago, aire zabaleko areto eta agertoki nagusiak zeharkatuko dituztenak, etorkizuneko talentuak eta unean uneko proposamen abangoardistenak ezagutzeko». Kontzertuen ordutegiak zehazteko dauden arren, kontzertu guztiak doakoak izango direla iragarri du BIMEk.

Rosario La Tremendita.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 **Miñan**
Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

2 **Berriz zentauro**
Katixa Agirre. Elkar

3 **Bar Gloria**
Nerea Ibarzabal Salegi. Susa

4 **Azken Etxea**
Arantxa Urretabizkaia. Pamiela

EZ FIKZIOA

1 **Mandamentu hipermodernoak**
Iñigo Martinez. Elkar

2 **Heriotzari aurrez aurre begira**
Oskar Gaztelu. Erein

3 **Kurdistan argi bat ekialde hurbilean**
Urtzi Urrutikoetxea. Elkar

4 **Gaueko eztabaidak**
Agustin Arrieta. Erein